

**JARRAIPEN TXOSTENA.
HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

Kurtoa 2017-2018

JARRAIPEN TXOSTENA

TITULUA: IZGI 2500585 - **IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOAN GRADUATUA**

KURTSOA: **2017-2018**

ARDURADUN ZENTRUA: **HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

DATA: **2019-02-28**

Indizea

1.-SARRERA.....	4
1.1 TESTUINGURUA	4
1.2 DOKUMENTUAREN EGITURA.....	4
2.- TITULUA BALIOESTEIA	5
I. DIMENTSIOA: TITULUAREN KUDEAKETA.....	5
II.- DIMENTSIOA: BALIABIDEAK	12
III.-DIMENTSIOA: EMAITZAK.....	16
3.-HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK ETA INDARRAK (Barne Kudeaketa)	19
III.1.HOBEKUNTZA PROPOSAMENEN JARRAIPENA	19
III.2. TXOSTEN HONETAN IDENTIFIKATUTAKO HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK.....	20
III.3. IDENTIFIKATUTAKO INDARGUNEAK	20
4.-TITULUAN EGINDAKO ALDAKETAK.....	23
IV.1. EGIAZTAPEN-/BAIMEN-TXOSTENETAN GOMENDATUAK.....	21
IV.2. JARRAIPEN TXOSTENETAN GOMENDATUAK.....	21
IV.3 ZENTRO ARDURADUNAREN EKIMENEZ EGINDAKOAK.....	21
I ERASKINA. ADIERAZLEAK.....	22

1.-SARRERA

1.1 TESTUINGURUA

Gradu hau 2009-2010 ikasturtean ezarri zen, eta 2010-2011 ikasturtetik aurrera urtero bidali dira Jarraipen Txostenak Unibasq-era. 2010-2011 eta 2014-2015 ikasturteetan jarraipen txostenaren ebaluazioa jaso zen.

1.2 DOKUMENTUAREN EGITURA

2013-2014 ikasturtean jarraipen txostenen egitura aldatu genuen. Egitura hau akreditazio txostenen egiturara hurbiltzen da, eta, honela, jarraipen txostenen eta akreditazio prozesuen erlazioa eta koherentzia bermatzen da. Akreditazio txostena, azken lau urteetako jarraipen txostenen edukiaren bidez osatu ahal izango da, eta titulazioaren bilakaera osoaren ikuspegia izango du.

Honela, 2014-2015, 2016-2017 eta 2017-2018 ikasturteetako Jarraipen Txostenak ere egitura beraren arabera gauzatu dira.

Bestalde, kontuan izan dugu Unibasq-ek 2016ko martxoaren 9an ateratako ebazpena, eta eguneratu egin dugu protokoloa honek eskatzen dituen eduki eta adierazleekin.

Txostenean hiru dimentsio aztertu dira: lehenik, alderdi kualitatiboei dagozkienak, eta, ondoren, alderdi kuantitatiboak kontuan izanda. Jarraian, hobekuntza proposamenen eta indarguneen jarraipena egin da. 4. Puntuan, tituluaren egindako aldaketak jasotzen dira eta, azkenik, adierazleen azterketa egiten da.

2.- TITULUA BALIOESTEA

I. DIMENTSIOA: TITULUAREN KUDEAKETA

I.1.-IRIZPIDEA: ANTOLAMENDUA ETA GARAPENA

I.1.1.-Ikasketa-planaren ezarpena eta programaren antolamendua egiaztapen-memorian eta/edo geroago egindako aldaketetan jasotzen diren tituluari lotutako helburuen profilarekiko koherenteak dira.

2017-18 ikasturtean itxi egin da ikasketa plangintza berriaren zikloa, 4. maila arte inplementatu delako. Laugarren maila horretan, Gradu Bukaerako Lanak hartu du protagonismo berezia, aurreko ikasketa plangintzan baino 6 ECTS gehiago izan baititu, 24 ECTS guztira. Era berean, egindako aldaketa ebaluatu da, hala ikasleen nola irakasleen asebetetze maila aztertuta; ebaluazioa positiboa izan da.

I.1.2.-Definitutako egreso-profilak garrantzitsua izaten jarraitzen du eta eremu akademikoaren, zientifikoaren eta profesionalaren baldintzen arabera eguneratuta dago.

Barne Kalitate Sistemako O prozesuak eta PRO prozedurek ahalbidetzen dute egreso-profilaren inguruko hausnarketa. 2009-2010 ikasturtearen ondoren egindako memoria aldaketan eguneratu da egreso profil hau (2014-2015 ikasturtean aldaketen memoria aurkeztu zen Unibasq-era).

I.1.3.-Tituluak irakaskuntzako koordinazio-mekanismoak biltzen ditu, ikasleei esleitzen zaien lan karga eta denbora-plangintza egokiak izatea ahalbidetuz eta ikaskuntza-emaitez lortzea ziurtatuz.

Graduko koordinaziorako moldaketak egin dira plangintza berriaren eta fakultateko organigraman izandako aldaketen eraginez. Graduko Batzordea zena, Titulazio Batzordea deitzen da orain, eta honako egitura eta kudeaketa-mekanismoak ditu:

Hasteko, batzordea **bost kidez** osatutako dago: graduko koordinatzailea batetik, eta maila bakoitzeko tutoreak bestetik. Batzordeak hainbat zeregin hartzen ditu bere gain. Hauek dira bere funtzioak, ia guztiak, aurrekoaren berberak:

- 1.- Batzordeari dagokion kudeaketa plana diseinatu, jarraitu eta ebaluatzea.
- 2.- Ikasturteko ikasketa plangintzaren gestioa egin.
- 3.- Jardueren koordinazioa bermatu sinergiak bilatuz: ikasketa plangintza, lan-sekuentzien artekoa...
- 4.- Baliabideen beharrak, aurreikuspenak egin eta proposamenak egin.
- 5.- Etorkizuneko erronkak zein izan daitezkeen aurreikustea eta horiei erantzuteko bideak proposatzea (berrikuntzaren ildotik).
- 6.- Ikasleen naizoarteko jarduna gestionatzea, Nazioarteko arduradunarekin batera.

- 7.- Praktikak eta Gradu Bukaerako Lanak kudeatzea.
- 8.- Beste eginkizun batzuk kudeatzea: ate irekiak, katalogoak, barne arautegiak, titulazioarekin loturiko dekretuen jarraipena...
- 9.- Ziurtatzea ebaluazio sistema koherentea dela hezkuntza ereduarekin (asetasun inkestak).
- 10.- Ekintza osagarriak kudeatzea (Komunikaldia, Huhezinema, Euspot...).
- 11.- Curriculumaren koherentzia profil profesionalari begira dagoela ziurtatzea.
- 12.- Graduako koordinazioa eta antolaketa: lan-sekuentzien arteko koordinazioa, tutore eta irakasleen koordinazioa, materialaren koordinazioa...

Aurreko guztia betetzeko, tresna, mekanismo eta estrategia desberdinak erabiltzen ditugu:

Titulazio Batzordearen bilerak: bilerak egiten dira hilean edo bi hilean behin. Bilera horietan, batetik, saiatzen da erantzuna ematen egunerokotasunak eragiten dituen arazoei, eta bestetik, graduaren beraren jarraipena egiten da (sekuentzien garapena eta balorazioa, irakasleen zein ikasleen ebaluazioa, ikasleen arreta eta jarraipena...). Horrez gain, bertan biltzen dira unean uneko indarguneak eta hobetzekoak, ondoren, ikasturte amaieran, sakonago eta lasaiago aztertuko direnak. Bigarren fase horretan helden zaie, bereziki, hobekuntza proposamenei.

Jarraipen taldeak: jarraipen taldeen helburua da ikas-mailen egoera beste ikuspegitik aztertzea, hau da, ikasleen begiradatik. Titulazio Batzordean tutore eta irakasleen ahotsa jasotzen bada, jarraipen taldeetan ikasleei ematen zaie hitza, eta haien beren iritzia, proposamen, zalantza, kexa eta gainerakoak plazaratzen dituzte horretarako propio prestatutako bileretan. Bilera horiek bi eratakoak dira: bat, graduako koordinatzailea eta tutorea maila guztiarekin elkartzeko dira, eta, talde dinamika baten bitartez, ikasle guztien ahotsa jasotzen du mahaiz mahai; eta bi, graduako koordinatzailea eta mailako tutoreak ikasle ordezkariarekin elkartzeko dira soilik, eta azken horiek taldearen iritzien berri ematen diete irakasleei. Batera zein bestera, helburua da ikasleen ahotsa jasotzea, batez ere honelako berrikuntza prozesu batean.

Tutoretzak: Bi tutoretza sistema daude, taldekoa eta banakakoa. Lehen aipatu bezala, maila bakoitzak tutore bat dauka, eta bere ardura da tutore den ikasmailaren taldeko jarraipena egitea, eta talde bezala dituzten kezkei eta arazoei erantzutea. Aurreko ikasturtean, lehen eta bigarren mailan bina tutore zeuden, baina ikasle bakoitzari banakako tutore bat esleitu zaionez gertuko jarraipen pertsonalizatua egiteko, ikasturte honetan mailako tutore bakarra egotea erabaki da. Banakako tutoretzei dagokienez, lehen eta bigarren mailan bina elkarriketa egiten dira ikasle bakoitzarekin, eta bana hirugarren eta laugarren mailatan; azken hauetan, Praktikak eta gradu ondorenak hartzen dute protagonismo nagusia, hurrenez hurren. Tutoretza saio horien helburua da ikasle bakoitzaren ezaugarri eta beharrak identifikatzea, eta, behin hori eginda, laguntzea bere ikaskuntza prozesuan, bai alde akademikotik, baita alde pertsonaletik ere.

Tutore mintegiak: graduaren moldaketa prozesuan sartu ginenetik, ikasturte amaierara eraman dira mintegi horiek, eta beraien xedea da prozesu hori baloratu eta ebaluatzea, eta hurrengo ikasturteari begira proposamen zehatzak adostea. Barne irakasle guztiek parte hartzen dute mintegi horietan, eta, lantzean behin, hezkuntza aditu bat gonbidatzen da bertara hobekuntza prozesu horretan lagundu ahal izateko. Horrez gain, praktika eta esperientzia akademiko desberdinak partekatzen dira irakasleen artean (bertakoak zein kanpokoak), eta formazio beharrak identifikatzen dira.

Beste alde batetik, Titulazio Batzordeko kideek beste organo/foro hauetan ere parte hartzen dute:

- **Fakultateko Gradu Lan taldea:** honen bidez, fakultateko gradu desberdinen artean behar diren elementu komunak lantzen dira, eta bertan parte hartzen du koordinatzaileak.
- **Kaptazio taldea:** ikasturtean zehar, hurrengo ikasturteari begira dauden beharrak eta proposamenak identifikatzen dira, denon artean hobeto koordinatzeko eta behar bezala formatzeko (ate irekiak, azokak, bisitak zentroetara...).

I.1.4.-Aplikaturako onarpen-irizpideek ikasleek ikasketa hauek hasteko behar duten sarrera-profil egokia izatea ahalbidetzen dute eta egiaztapen-memorian eskaintzen den plaza kopurua errespetatzen da.

Memorian eskatzen diren irizpideak betetzen dira, eta baita legediak ezartzen dituenak ere.

I.1.5.-Araudi akademikoak modu egokian aplikatzen dira, errendimendu akademikoko adierazleen balioak hobetuz ahalbidetuz.

Graduko lehen araudi akademikoa 2009-2010 ikasturtean onartu zen, Mondragon Unibertsitatearen esparru-araudiaren eta une hartan indarrean zegoen legeriaren arabera. 2009-2010 ikasturteari aurrera, eguneratuz joan da araudia (HO31403), bereziki 861/2010 Errege Dekretuak eta Goi Mailako Hezkuntzan ikasketak baliozkotzeari buruzko 1618/2011 Errege Dekretuak eragindako lege-aldaketen ondorioz.

Indarrean dagoen araudia kasu kasuko ikasturteko gradu ikasle guztiei aplikatzen zaie. Alde horretatik, araudi akademikoa aplikatzeari esker, bete egin daitezke errendimendu-adierazleei buruz jarritako helburuak.

I.2-IRIZPIDEA: INFORMAZIOA ETA GARDENTASUNA

I.2.1.-Tituluaren arduradunek prestakuntza-programaren ezaugarriak eta haren garapenari eta emaitzei buruzko informazio egokia eta eguneratua argitaratzen dute.

Fakultateak zenbait tresna ditu titulazio baten informazioa kudeatzeko eta zabaltzeko, fakultateko interes-taldearen arabera:

1.- Gizarteari, enplegatzaileei eta etorkizuneko ikasleei igorritako informazioa:

- www.mondragon.edu/huhezi webgunea: Webgunearen helburu nagusia gizarteak Fakultatea ezagutzeko da. Informazio xehea ematen da eskaintzen diren ikasketei, egiten diren jardueri, eta dauden zerbitzuei edo fakultateko albisteei buruz. Ikasketei buruzko informazioa etorkizuneko ikasleei zuzendua da batez

ere, eta, horregatik, aukeran den titulazio bakoitzari buruzko informazio guztia ematen da, xeheki eman ere.

2.-Graduan matrikulatutako ikasleentzako informazioa:

- *Intraneta*, www.intraneta.huhezi.edu, nondik ikasleek sarbidea baitute eskura dituzten baliabide birtualei buruz, hala nola: google apps, moodle plataforma birtualerako eta irakaskuntzako beste plataforma batzuetarako sarbidea, sareko fitxategietarako sarbidea, materiala erreserbatzeko gunea...
- Moodle plataforma birtuala irakaskuntzari laguntzeko oinarritzko tresna bat da. Titulazio bakoitzak bere ikasturtea taxutzen du, bere irakasgaiekin, eta irakasgaiotan hainbat hezkuntza-jarduera izaten dira. Horrez gainera, bada Ikasle Txokoa izeneko atal bat, non ikasleek fakultateko informazio orokorrerako irizpidea baitute: araudi akademikoak, irakaskuntza-gidak, egutegiak, ordutegiak, eskura dituzten zerbitzuei buruzko zehaztapenak, eta abar.

3.- Irakasle eta Zerbitzuetako langileentzako informazioa:

Fakultateak honako tresna teknologiko hauek ditu, irakasle eta zerbitzuetako langileentzat dagoen informazioa kudeatzeko:

Hudle: (<http://hudle.huhezi.edu/>) Moodlen oinarrituriko plataforma bat da, eta fakultateko langile guztiek dute sarbidea bertara (irakasleek zein laguntza-langileek). Fakultateko informazio orokor guztia dago eskura: araudiak, egutegiak, eta abar; laguntza-zerbitzuei eta horiekin zerikusia duten prozesuei buruzko informazioa, ikerketa- eta transferentzia-proiektuei buruzko informazioa...

Kude: (<http://kude.mondragon.edu/>) kalitatearen barne bermerako sistema kudeatzeko tresna bat da, eta sistema horren informazio guztiak biltzen ditu: prozesuak, prozedurak, adierazleak... Horien analisiak egiten dira (adierazle-panelen bitartez), bai eta Segimendu eta Akreditazio Txostenak ere.

Arasa: (<http://arasa.huhezi.mondragon.edu/>) dokumentu-kudeatzailea, zeinaren bitartez fakultateko dokumentazio guztia kudeatzen baita. Historiko gisa erabiltzen da, eta Hudleren osagarria da.

Dedikazioak: (<http://dedikazioak.huhezi.edu/>) irakasleen eta laguntza-langileen dedikazio-orduak kudeatzeko tresna da. Horrez gainera, proiektuen lan-kargak ere kudeatzen ditu.

Curriculumak: (<http://193.146.78.6:8080/CurriculumMU/>) irakasleen eta laguntza-langileen curriculumak kudeatzeko tresna da.

I.2.2.-Etorkizuneko ikasleek eta Estatuko eta nazioarteko bestelako interes-agenteei erabakiak hartzeko beharrezkoa duten informazioa erraz lor dezakete.

Webgunean eskura dagoen informazioa aldatuz eta hobetuz joan da azken urteetan. Ikasketen inguruko informazio guztia agertzen da bertan.

I.2.3.-Ikasleek ikasketa-planari eta aurreikusitako ikaskuntza-baliabideei buruzko informazio garrantzitsua eskuratzeko aukera izaten dute dagokion unean.

Webgunean eta moodle plataforman eskura dagoen informazioaz gain, ikasturteko lehen egunean harrera-plan bat egiten da fakultatean bertan. Egun horretan ikasleak fakultatera hurbiltzen dira eta titulazioko koordinatzaileak hainbat informazio ematen die ikasleei: graduaren ezaugarri orokorrak, graduaren antolaketa, fakultatean funtzionatzeko argibide nagusiak, ikasleen partaidetzarako aukerak, larrialdietarako plana, elur protokoloa, eta abar. Lehen mailan, harrera plan hori bereziagoa eta sakonagoa izaten da, hainbat egunez luzatzen baita; bertan, gorago aipatutakoez gain, metodologia berriaren argibideak

ematen zaizkie ikasleei eta lagundu egiten zaie fakultateko sarbidea arinago izan dadin. Harrera planen gaineko informazio guztia jasota dago Hudle plataforman.

I.3-IRIZPIDEA: KALITATEAREN BARNE BERMEKO SISTEMA (KBBS)

I.3.1.-Kalitatearen Barne Bermeko Sistema inplementatuz eta aldizka berrikusiz informazioa eta titulazioak modu eraginkorren kudeatzeko emaitzak jasotzea eta etengabe aztertzea bermatzen da.

Fakultateak Kalitatearen Barne Bermerako Sistema du (KBBS). Horren aplikazio-eremua titulazio ofizial guztietara iristen da.

Sistema hori ANECAren AUDIT programaren gidalerroen arabera eginda dago, 2007-2008 ikasturtean diseinatu zen, eta ANECAk balioespen ona egin zuen 2008ko irailean. 2013-2014 ikasturtean, sistemaren ezarpena egiaztatu zen. Sistema horretan, prestakuntza-programen kalitate-bermea funtsezkoa da, eta prestakuntza-eskaintzaren plangintza, ebaluazioa eta garapenaren berrikusketa hartzen ditu aintzat, bai eta prestakuntza hobetzeko erabakiak hartzea ere.

KBBS dokumentaturik dago gidaliburu batean, non fakultatearen kalitate-politika eta kalitateari buruzko helburu orokorrak jasotzen diren; kalitate sistemak jasotzen dituen prozesuak ere jasotzen dira: titulazioei dagozkienak (diseinua, plangintza eta garapena, berrikusketa eta hobekuntza), ikasleei dagozkienak (informazioa, lanerako orientabidea eta lan-munduan txertatzea), langileei dagozkienak (irakasle-ikertzaileei eta administrazio eta zerbitzuetako langileei), eta baliabide materialen eta zerbitzuen kudeaketari dagozkienak.

Prozesu horiek guztiek KBBSaren mapa osatzen dute, prozesu laguntzaileez, prozesu estrategikoez eta hobetzeko prozesuaz elikatzen dira, hartara, sistema etengabe hobetuko dela bermatzen baita. Horrez gainera, sistema kudeatzeko, fakultateak tresna informatiko bat du, KUDE izeneko. Horren bidez kudeatzen da sistemari buruzko informazioa (prozesuen fitxak, dokumentazioa eta adierazleak), emaitzen analisia, eta jarraipen- eta akreditazio-txostenen bidezko kontu-emateak.

Titulazioen kudeaketari dagozkion prozesuak oso prozesu garrantzitsuak dira sisteman, eta honela daude sailkatuta: graduak kudeatzeko prozesuak, graduondoak kudeatzekoak, doktoretza, etengabeko prestakuntza kudeatzekoak eta, azkenik, ikerkuntza eta transferentzia kudeatzekoak. Prozesu horiek guztiek beren adierazleak dituzte, eta, denen artean, adierazleen panela osatzen dute. Adierazleen jarraipena egiterakoan, titulazio baten jarraipena eta emaitzen analisia egiten da.

Interes-taldeen gogobetetasunari dagokionez, gogobetetasun-maila neurtzeko, M2.1 prozesua dugu. Prozesu horren bidez, ikasleen, egresatuen eta langileen asetasun maila neurtu eta aztertzen da.

I.3.2.-Kalitatearen Barne Bermeko Sistema inplementatuak tituluaren jarraipen-,aldaketa-eta egiaztapen-prozesua errazten du eta datu objetiboak aztertuz, tituluaren etengabeko hobekuntza bermatzen du.

Graduen kudeaketari dagozkion prozesuen artean, O2.1 prozesuan jasota dago ikasturtero titulazio guztiek Jarrapen Txosten bat egiten dutela, non titulazioaren hainbat aspektu eta hainbat adierazle aztertzen diren.

Adierazleen analisi horren bitartez, adierazleen ebaluazio jarraitua egiten da. Adierazleen, irakaskuntzaren eta kudeaketaren analisia egin eta gero, hobetzeko proposamenak hautematen dira.

Txostenak aztertu egiten dira Fakultateko zenbait organotan, M3.1 prozesuak –Emitzen segimendua eta analisia– adierazten duen bezala, eta Unibasqera bidaltzen dira, han ebalua ditzaten.

Ebaluazio horiek kasuan kasuko titulazioaren webgunean argitaratzen dira.

I.3.3.-Kalitatearen Barne Bermeko Sistema inplementatuak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren kalitatearen ebaluazioa eta hobekuntza ahalbidetzen dituzten prozedurak biltzen ditu.

O2.1 prozesuak –prestakuntza programen kalitatea bermatzekoa– eta O2.3 prozesuak –ikaslearentzako irakaskuntzaren garapena– bide ematen dute titulazio bakoitzeko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak diseinatzeko, ezartzeko, neurtzeko eta hobetzeko.

Prozesu horien bidez bildutako adierazleak eta ebidentziak aztertzen dira Titulazio Batzordeetan eta Gradu Lan Taldean. Azterketa horri esker, indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzen dira, behar bezala planifikatzeko eta hurrengo ikasturte akademikoan inplementatzeko.

TITULUAREN KUDEAKETA" DIMENTSIONAREN JARRAIBIDEEN BALIOESPEN ERDIKUANTITATIBOA

	AZPI-IRIZPIDEA	A	B	C	D
I.1.1	Ikasketa Planaren ezarpena eta programaren antolamendua egiaztapen-memorian eta/edo geroago egindako aldaketetan jasotzen diren tituluari lotutako gaitasunen eta helburuen profilarekiko koherenteak dira.	✓			
I.1.2	Definitutako egreso-profikak garrantzitsua izaten jarraitzen du eta eremu akademikoaren zientifikoarekin eta profesionalaren baldintzen arabera eguneratua dago.	✓			
I.1.3	Tituluak irakaskuntzako koordinazio-mekanismoak biltzen ditu, ikasleei esleitzen zaien lan-karga eta denbora-plangintza egokiak izatea ahalbidetuz eta ikaskuntza-emaitez lortzea ziurtatuz.		✓		
I.1.4	Aplikaturako onarpen-irizpideek ikasleek ikasketa hauek hasteko behar duten sarrera-profil egokia izatea ahalbidetze dute eta haiek aplikatzearekin egiaztapen-memorian eskaintzen den plaza kopurua errespetatzen da.	✓			
I.1.5	Araudi akademikoak modu egokian aplikatzen dira, errendimendu akademikoko adierazleen balioak hobetzea ahalbidetuz.	✓			
I.2.1	Tituluaren arduradunek prestakuntza-programaren ezaugarriei eta haren garapenari eta emaitzei buruzko informazioa egokia eta eguneratua argitaratzen dute.	✓			
I.2.2	Etorkizuneko ikasleek eta Estatuko eta nazioarteko bestelako interes-agenteei erabakiak hartzeko beharrezkoa duten informazioa erraz lor dezakete.		✓		
I.2.3	Ikasleek ikasketa-planari eta aurreikusitako ikaskuntza-baliabideei buruzko informazio garrantzitsua eskuratzeko aukera izaten dute dagokion unean.	✓			
I.3.1	Kalitatearen Barne Bermerako Sistema inplementatuz eta aldizka berrikusiz informazioa eta titulazioak modu eraginkorrean kudeatzeko emaitzak jasotzea eta etengabe aztertzea bermatzen da.	✓			
I.3.2	Kalitatearen Barne Bermeko Sistema inplementatuak tituluaren jarraipen,-aldaketa-eta egiaztapen-prozesua errazten du eta datu objektiboak aztertuz, tituluaren etengabeko hobekuntza bermatzen du.	✓			
I.3.3	Kalitatearen Barne Bermeko Sistema inplementatuak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren kalitatearen ebaluazioa eta hobekuntza ahalbidetzen dituzten prozedurak biltzen ditu.	✓			

II.- DIMENTSIONA: BALIABIDEAK

II.1.- IRIZPIDEA: LANGILE AKADEMIKOAK

II.1.1.- Tituluko langile akademikoek titulurako eskatzen den kualifikazio akademikoko maila biltzen dute, baita esperientzia eta irakaskuntza-eta ikerketa-kalitatea egokia ere.

Graduaren izaera bermatzeko, irakasleen esperientzia profesionala, ikertzaile zein hezitzaile bezala, egokia da maila akademikoan eta definitutako konpetentziekiko

Praktiken tutoretza kudeatzen duen pertsonal akademikoak esperientzia egokia eta nahikoa dauka. Praktika curricularrak hirugarren mailan egiten dira, eta koordinatzaile jakin bat izaten dute. Bera jartzen da harremanetan enpresa eta erakundeekin, eta, hango tutorearen laguntzaz egiten du ikasle guztien praktikaldiaren jarraipena. Curriculumetik kanpo ere ikasleek badute aukera praktikak egiteko.

Gradu bukaerako lanerako, graduako pertsonal akademikoak dedikazio bat dauka esleituta lan horien tutoretzarako. Tutoreen esleipen prozesua, proiektuen bereizgarrien eta dedikazioen arabera egiten da.

Pertsonal akademikoaren egituran ez da aldaketa esanguratsurik eman graduaren ezarpenetik. Egon diren moldaketak pertsonal akademikoari dagozkion ohiko aldaketak izan dira.

II.1.2.- Langile akademikoak nahikoak dira eta beren funtzioak garatzeko eta ikasleak artatzeko dedikazio egokia izaten dute.

Urtez urte gradua baldintza berdintsuetan emateko aukera errazten duen pertsonal akademiko egonkorra daukagu. Irakaskuntzari dagokionez, lan kargaren esleipena kooperatibako barne araudiaren arabera esleitzen da.

II.1.3.- Irakasleak tituluaren ezaugarriak kontuan hartuta eguneratzen dira, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari modu egokian ekiteko moduan.

Fakultateko antolakuntza-sistemak aukera ematen dio pertsonal akademikoari pedagogian prestatzeko eta eguneratzeko, eta horretara bultzatzen du honako prozesu hauen bitartez:

-Irakasle eta barne-ikertzaile izateko prestakuntza-plana. Fakultateko irakaskuntza-langile guztientzat da, eta eremu akademikoan eta ikerkuntzakoan dauden prestakuntza-premietatik abiatuta diseinatzen da, antolakuntza-sistema osatzen duten arlo bakoitzaren premiak hauteman ondoren.

-Lerroen baitako koordinazioa. Lerroen xedea zera da, haiek osatzen dituztenen garapen pertsonala eta profesionala bermatzea, lerro bakoitzean

artikulatzen diren zenbait prozedura eta mekanismoren bidez: ikerketa-proiektuak, transferentzia-proiektuak, hezkuntza-foroetan parte hartzea eta komunikatzea, eta banan-banako prestakuntza-programak.

-Jardun Pedagogiko eta ikerketa egunak. Egun hauen xedea zera da: fakultatearen hezkuntza proiektuaren segimendu eta ebaluaziotik sortutako prestakuntza-premiak zehaztea eta haiei erantzutea. Fakultateko irakasle guztiek hartzen dute parte mintegian.

II.1.4.-Unibertsitateak egiaztapen-memorian biltzen diren konpromisoak eta tituluaren egiaztapen,baimen eta jarraipen-txostenetan zehaztutako gomendioak gauzatu ditu.

2009an onartutako egiaztapen memoriak ez zuen gomendiorik luzatu.

II.2.-IRIZPIDEA: LAGUNTZA-LANGILEAK, BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK

II.2.1.-Prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten laguntza-langileak nahikoak dira eta tituluari lotutako langile akademikoen irakaskuntza-jarduerari ondo eusten diote.

Titulazioaren sostengua, zerbitzuei dagokienez, hiru arlo handitan banatzen da. Honakoak dira:

1. Zerbitzu akademikoak: ikasle eta irakasleen zerbitzura dago eta ikaste-irakaste prozesuaren kudeaketa akademiko-administratiboaren ardura dauka (espediente akademikoak, kalifikazio aktak, kredituen errekonozimendu eta transferentzia, notak, ziurtagiriak, Gradu Bukaerako Lanak, ...).

2. Administrazio eta finantza arloak: finantza eta ekonomia baliabideen administrazio, kudeaketa eta jarraipenarekin zerikusia duten betebeharrak kokatzen dira hemen. Balantzearen oreka, fidagarritasuna, zinezkotasuna eta legalitatea bermatzea dagozkio eremu honi. Baita sarrera eta irteeren kontuak, diru fluxuen egoera, zergen kudeaketa eta beste tramite fiskalak ere. Era berean, materialen inbentarioaren doikuntzaren eta produktu eta zerbitzuen planifikazio eta erosketen kudeaketaren ardura du. Bukatzeko, administrazio sozio-laboral egokiaren bermatzaile da, langile, bekadun, azpi-kontratadun, onuradun eta ikasleen legezko estaldura eta gizarte prestazioa ziurtatuz.

3. Baliabide didaktiko materialen arloa: eraikinen kudeaketari dagokion alderdi guztiak kokatzen dira hemen. Hauek, besteak beste: gela eta multimedia guneen mantenu eta ekipamendua, garbiketa zerbitzua, informazioa, telefonia, azpiegitura teknologiko eta informatikoa, baliabide didaktikoen kudeaketa eta beste baliabide teknologikoen mailegu zerbitzua (portatilak, kamarak, gelak, ...).

II.2.2.-Baliabide materialak ikasle kopuruari eta tituluaren programatutako prestakuntza-jarduerei egokituta daude.

Fakultatea bi campusek osatzen dute: Aretxabaletan bat, eta Eskoriatzan bestea. Eskoriatzako campusa bi eraikinek osatzen dute: Dorletako eraikinak 2.000m² ditu (500m² soilaruko) eta Nagusiak, berriz, 5.544m² (1.848 m² solairuko). Aretxabaletako campusari dagokionez, fakultatearen eraikinak 3.228,69 m²ko hedapena du (1.219,13 m² ditu beheko solairuak eta 955,82m² 1. eta 2. solairuek). Eraikin hau 2012-2013 ikasturte akademikoan inauguratu zen. Fakultateko ikasle guztiek bi campusetako zerbitzuak erabiltzeko aukera dute.

Bi campusek betetzen dituzte irisgarritasun eta segurtasun arauak, eta komunak zein igogailuak daude denontzako erabilgarri. Eskoriatzako campusean, Nagusia eraikinean igogailua solairu guztietara iristen da eta komun egokituak daude solairu guztietan. Dorleta eraikinean ere, igogailua solairu guztietara iristen da eta komun egokituak daude behe eta bigarren solairuan. Aretxabaletako campusari dagokionean, hiru solairuetara iristen den igogailua dago, eta egokitutako komunak ere hiru solairuetan daude. Ikasle zein langileen sarbidea kontrolatuta dago bi campusetan, txartel elektronikoaren bidez.

Mantenimendu zein errebisio mekanismoak bermatzeko, fakultateak S.2.1 prozesua du (zerbitzu, ekipamendu eta instalazioen kudeaketa). Prozesuaren helburu nagusia da planifikatzea eta bermatzea HUHEZIK eskaintzen dituen zerbitzu zein ekipamendu guztiak ikaste-irakaste prozesuen garapenerako modu egoki batean eskaini eta mantentzen direla.

II.2.3.-Urruneko modalitatean edo modalitate erdi-presentzialen kasuan, titulu horiei lotutako azpiegitura teknologikoak eta material didaktikoak egokiak dira.

Ez dagokio.

II.2.4.-Eskura jartzen diren laguntzarako zerbitzuak eta orientazio akademikoko, profesionaleko eta mugigarritasunerako orientazioko zerbitzuak gaitasunei eta modalitateari egokituta daude.

Tutoretza planak jasotzen ditu tutoretzaren helburuak eta ikasleei orientabidea eta tutoretza eskaintzeko ekintzak. Laburbilduz, tutoretza planaren misioa hezkuntza prozesuaren kalitatea hobetzea da. Besteak beste, ikasle eta irakasleen arteko harremana sustatzea du helburu, erakundean ikasleen integrazioa erraztea, ikasketarako gaitasunen garapenean laguntzea, eta ikasleari laguntza akademikoa eta aholkularitza eskaintzea.

Lanbide-orientabiderako zerbitzua eskaintzen da Huhezi-n. Bi langile egoten dira ikasleen galderari erantzuteko. Antolatzen diren orientazio saioetan ere parte hartzen dute, ikasleei hainbat informazio ezberdina (atzerrian lana egin eta ikasi).

II.2.5.-Tituluak nahitaezko kanpo-praktikak egitea biltzen duen kasuetan, praktikak aurreikusitakoaren arabera planifikatzen dira eta tituluak biltzen dituen gaitasunak eskuratzeko egokiak dira.

Praktikak hirugarren mailan egiten dira, eta guztira 12 ECTS dituzte. Aurreko jarraipen txostenean hartutako konpromiso bati jarraiki, 2015-2016 ikasturtean erabaki zen klaseak bi hilabetez etetea ikasleek praktikak erosotasunez eta eraginkortasunez egin zitzatzen. Ordura arte, praktikaldia ikasturte osora zabaltzen

zen eta jardun akademikoarekin tartekatuta egiten zen (ikasleek klaseak jasotzen zituzten goizean, eta arratsaldean praktikak egiten zituzten enpresa zein erakundetan). Egitura modu horrek eragozpen ugari eragin zien ikasleei, zail egiten zitzaielako gauza biak aldi berean egitea, eta, ondorioz, erabaki zen ikasturtea lehenago hasi eta geroago amaitzea, eta erdian klaseak etetea. Horrek erraztu egin du praktikak behar bezala betetzeko aukera izatea eta haien helburura hobeto iristea. Izan ere, praktiken xedea da unibertsitatean ikasitako eta bertan garatutako konpetentziak bizitza eta lan esperientzia errealetan gauzatea. Praktika horiek komunikazioaren munduarekin harremana duten enpresetan egin behar izaten dira, edo, komunikazioarekin inolako harremanik izan ez arren, komunikaziori lotutako eginkizunetan. Praktikaldi garaian, ikasleak tutore bat dauka fakultatean (praktiketako koordinatzailea) eta beste bat enpresan, eta bien artean egiten dute ikasleen jarraipena eta ebaluazioa. Horrekin batera, ikasleak bere esperientzia eta han ikasitakoa jasotzen ditu horretara propio bideratutako txosten batean.

Praktikaldia ondoren, praktiken mintegia egiten da, ikasleek praktiketan izandako esperientziaren berri emateko eta gainontzeko ikasleekin partekatzeko.

I.2.6.-Unibertsitateak egiaztapen-memorian biltzen diren konpromisoak eta tituluaren egiaztapen-, baimen-eta jarraipen-txostenetan zehaztutako gomendioak gauzatu dira.

Egiaztapen memoria biltzen diren konpromisoak bete dira, eta baita jarraipen txostenetan zehaztutako gomendioak ere.

"BALIABIDEAK" DIMENTSIOAREN JARRAIBIDEEN BALIOESPEN ERDIKUANTITATIBOA

AZPI-IRIZPIDEA		A	B	C	D
II.1.1	Tituluko langile akademikoek titulurako eskatzen den kualifikazio akademikoko maila biltzen dute, baita esperientzia eta irakaskuntza-eta ikerketa-kalitate egokia ere.	✓			
II.1.2	Langile akademikoak nahikoak dira eta beren funtzioak garatzeko eta ikasleak artatzeko dedikazio egokia izaten dute.	✓			
II.1.3	Irakasleak tituluaren ezaugarriak kontuan hartuta eguneratzen dira, irakaskuntza-ikaskuntza prozeusari modu egokian ekiteko moduan.	✓			
II.1.4	Unibertsitateak egiaztapen memoria biltzen diren konpromisoak eta tituluaren egiaztapen-,baimen-eta Jarraipen Txostenetan zehaztutako gomendioak gauzatu ditu.	✓			
II.2.1	Prestakuntza jardueretan parte hartzen duten laguntza-langileak nahikoak dira eta tituluari lotutako langile akademikoen irakaskuntza-jarduerari ondo eusten diote.	✓			
II.2.2	Baliabide materialak ikasle kopuruari eta tituluaren programatutako prestakuntza jarduerari egokitu daude.	✓			
II.2.3	Urruneko modalitatean edo modalitate erdi-presentzialean ematen diren tituluen kasuan, titulu horiei lotutako azpiegitura teknologikoak eta material didaktikoak egokiak dira tituluari dagozkion prestakuntza jarduerak garatzeko eta gaitasunak eskuratzeko.	✓			
II.2.4	Matrikulatutako ikasleen eskura jartzen diren laguntzarako zerbitzuak eta orientazio akademikoko, profesionaleko eta mugigarritasunerako orientazioko zerbitzuak tituluari dagozkion gaitasunei eta modalitateari egokirura daude eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ahalbidetzen dute.	✓			
II.2.5	Tituluak nahitaezko kanpo-praktikak egitea biltzen duen kasuetan, praktikak aurreikusitakoaren arabera planifikatzen dira eta tituluak biltzen dituen gaitasunak eskuratzeko egokiak dira.	✓			
II.2.6	Unibertsitateak egiaztapen memoria biltzen diren konpromisoak eta tituluaren egiaztapen-,baimen-eta Jarraipen Txostenetan zehaztutako gomendioak gauzatu ditu.	✓			

III.-DIMENTSIOA: EMAITZAK

III.1.- IRIZPIDEAK: IKASKUNTZA-EMAITZAK

III.1.1.-Prestakuntza-jarduerak eta erabilitako irakaskuntza-metodologiak eta ebaluazio-sistemak egokiak dira eta aurreikusitako ikaskuntza-emaitez lortzeko egokitu daude.

Azken bi ikasturteetan ezarritako ereduak eta erabilitako irakaskuntza-metodologiak zein ebaluazio-sistemak bat egiten dute Mendeberrri hezkuntza proiektuak irekitako bidearekin. Proiektu hori ikaslearen bueltan dago eraikia, ikaslea bera da ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren ardatza, eta haren parte-hartze aktibo eta kooperatiboan jartzen da indar nagusia. Konpetentziak lan munduan eta praktika profesionalean garatzen direnez, funtzio profesional horiek definituz abiatu zen eredu berria, eta, behin horiek zehaztuta, haiei dagozkien ikasketa-emaitez zerrendatu ziren, graduak zein mailaz mailakoak.

Ikasketa-emaitez horiek dira egindako moldaketaren giltzarria. Haiek graduak eta maila bakoitzean zehaztu ondoren, haien garapena bilatu da, eta, horretarako, lan-sekuentzia modura definitu ditugun modulu antzekoak diseinatu dira. Sekuentzia horiek bitarteko huts dira aipatutako ikasketa-emaitez horiek behar bezala lortzeko, eta haietan gauzatzen dira edukiak, trebetasunak, jarduerak eta balioak. Ikasketa-emaitez horiek ikasturtean zehar daude barreiatuak, eta lan-sekuentzia bakar bati baino gehiagori eragiten diote aldi berean. Haien azken kalifikazioa lortzeko, beraz, kurtsoa amaitu arte itxaron behar da, ebaluazioa jarraitua baita; ikasleek aukera daukate ikasketa-emaitez horien lanketa hobetzen joateko ikasturteak aurrera egin ahala. Lan-sekuentziak, berez, ez daukate notarik, eta haien baitan integratzen da ohiko ikasgaien ezagutza. Hau da, ikasgaiak ez dira bere horretan desagertzen, baizik eta sekuentzietara biltzen dira.

Metodologiari dagokionez, eta Mendeberrri hezkuntza proiektuaren haritik, oso aktiboa eta praktikoa da. Eginez ikasten denez, ikasleek aurrez ezarritako arazo, proiektu edo erronka bati erantzun behar izaten diote sekuentzia bakoitzean, eta eginkizun horretara mugatzen dute denbora guztia sekuentziak dirauen bitartean. Erronka horrek biltzen ditu sekuentzia horri dagozkion ikasketa-emaitez eta hauen garapena zein lanketa. Eta metodologia desberdinak erabili eta uztartzen dira horretarako, nahiz eta erronketan eta proiektuetan oinarritutakoak nagusi. Horrek guztiak ahalbidetzen du ikasketa-emaitez jarraipena, ebaluazioa eta kalifikazioa.

Formazio prozesuen, metodologiaren eta ebaluazio sistemen egokitzapena ebaluatzeko, berriz, bi iturri nagusi erabiltzen dira: alde batetik, Titulazio Batzordea, non lan-sekuentzia bakoitzaren balorazioa egiten den, ikasleekin izandako jarraipen bilerak eta haiek betetako asetasun-inkestak lagun direla; eta bestetik, ikasturte amaierako Tutore mintegiak erabiltzen dira, bertan ikasturte osoaren mailaz-mailako balorazioa eta aurrera begirako hobekuntza-proposamenak egiten baitira. Bi horien bitartez lortzen da ebaluazioa ahalik eta integralena izatea.

Gradu Bukaerako Lana da, azkenik, graduaren amaiera identifikatzen duen prozesua. Bertan, erakunde, enpresa edo elkarte baten eskaerari erantzuten die

lanak, eta horretan jartzen dira ikasleak. Lan hau aurrera eramateko, ikasleak gradu osoan zehar landutakoa bateratzen du ikuspegi kritikotik. Tutoreen lana garrantzitsua da gradu bukaerako lanean ere, hala fakultatekoarena nola enpresakoarena. Lanaren defentsa tutoreen eta beste irakasle batzuen aurrean egiten da, ikasleek garatutako lanak eta helburuak bete dituztela ziurtatzeko.

II.1.2.-Lortutako irakaskuntza-emaitzek prestakuntza-programaren helburuak betetzen dituzte eta programa horren Goi Mailako Hezkuntzarako kualifikazioen Espainiako Esparruko mailari egokituta daude.

Gorago aipatu dugun bezala, metodologia desberdinak erabiltzen dira, baina beti ere kasu eta praktika errealei lotuta. Sekuentzia bakoitzak erronka edo proiektu jakin bati erantzun behar dio, eta horiek, oro har, benetako ogibideari estu lotutako lanak izaten dira. Lan erreal horiei erantzutea da ikasleen eginkizuna, eta lan horietako gehienak gizartera zabaltzen dira ondoren. Gainera, praktiken bidez, ikasleak lanbidean aurki ditzakeen egoera ezberdinak lehenengo eskutik bizitzeko aukera izaten du; klaseak pare bat hilabetez eteteak, praktikaldi hori are eta errealagoa izatea dakar berarekin.

Gradu Bukaerako Lanean ere erakunde, enpresa edo elkarte baten eskaera erreal bati erantzun behar diote ikasleek, eta horrek erakusten die benetako eskaera batek dituen zailtasun eta eskakizunak. Lan horiek ere, normalean, proiektio soziala izaten dute, eta bezero baten eskaerari erantzuteko trebetasunak lantzeko aukera ematen die ikasleei. Haiek bi tutore izaten dituzte lan horiek burutzeko: bat, fakultatean, eta beste bat, enpresan, eta bien artean alde akademikoa zein profesionala uztartzen ahalegintzen dira, beti ere ikasleen ezaugarriari eta betebahrreri begira. Amaieran, lan horien aurkezpena eta defentsa egin behar izaten dute. Defentsa horren aurretik, lan guztiak aurkezten dira enpresetako tutore zein beste hainbat adituren aurrean, horretarako propio antolatutako ekitaldi publiko batean. Horrek guztiak gerora aurkituko duten errealitate baten aurrean jartzen ditu ikasleak, aurreko mailatan irekitako bideari errematea emanez.

Horrez gain, hainbat orientazio saio egiten da laugarren mailan, beti ere ikasleei laguntzeko gradu ondorengo bidea aukeratzeko. Zentzu horretan, ikasleek aholkularitza lana izaten dute ikasturte osoan, eta, bereziki, laugarren mailaren bigarren zatian; bertan, tutoreak banan-banako elkarrizketak egiten ditu ikasle guztiarekin, aurrera begirako bide hori lotzen laguntzeko. Bestalde, hainbat profesional eta ikasle-ohi ekartzen dira fakultatera, haien lan esperientziak ikasleekin partekatuz. Beste horrenbeste egiten da ikasten jarraitu nahi dutenekin.

III.2.-IRIZPIDEA: GOGO BETETZE ETA ERRENDIMENDU ADIERAZLEAK

III.2.1.-Tituluaren datu eta adierazle garrantzitsuenen bilakaera egokia da, titulua txertatzen den gai-ereduarekin eta ingurunearekin bat datorrena.

Onarpen eta aldaketa memorietan finkaturiko adierazleen jarraipen estua egiten da urtero, eta bertan ezarritako tasak mantentzen dira.

III.2.2.-Ikasleen, irakasleen, egresatuen eta bestelako interes-taldeen gogobetetze maila egokia da.

Ikasleen gogobetetzeari buruz, azken hiru ikasturteetako gogobetetze tasa 7,50 punturen inguruan dago eta, beraz, emaitza oso positiboa dela ondorioztatu da.

Irakasleei dagokienez, ez da titulazio bakoitzeko gogobetetze tasa bat kalkulitzen. Titulazioaren ebaluazio kualitatiboa egiten da, ikasturte bakoitzaren amaieran, tutore mintegietan eta titulazio batzordean.

Praktiketako kanpo tutoreen gogobetetze tasa ere oso positiboa da.

III.2.3.-Tituluko egresatuen laneratze-mailaren adierazleen balioak tituluari dagokion testuinguru sozioekonomikorako eta profesionalerako egokiak dira.

2017-2018 ikasturteko daturik oraindik ez daukagu. Orain jaso ditugu Ikerfelek, 2016-2017 ikasturtean amaitu zuten ikasleen eginiko inkestaren emaitzak eta ikasleen %55-a daude lanean edo lanean eta ikasten. Datua aztertu eta lan egoera zein den aztertu ondoren, emaitza ona dela ondorioztatzen da.

"EMAITZAK" DIMENTSIAREN JARRAIBIDEEN BALIOESPEN ERDIKUNTATIBOA.

	AZPI-IRIZPIDEA	A	B	C	D
III.1.1	Prestakuntza-jarduerak eta erabilitako irakaskuntza-metodologiak eta ebaluazio-sistemak egokiak dira eta aurreikusitako ikaskuntza-emaitzak lortzeko helburuari zentzuzko moduan egokituta daude.	✓			
III.1.2.	Lortutako ikaskuntza-emaitzek prestakuntza-programaren helburuak betetzen dituzte eta programa horren Goi-mailako Hezkuntzarako Kualifikazioen Espainiako Esparruko mailari egokituta daude.	✓			
III.2.1.	Tituluaren datu eta adierazle garrantzitsuenen bilakaera egokia da, hain zuzen ere titulua txertatzen den gai-eremuarekin eta ingurunearekin bat datorrena, eta hasi berriak diren ikasleen ezaugarriekin koherentea.	✓			
III.2.2.	Ikasleen, irakasleen, egresatuen eta bestelako interes-taldeen gogobetetze-maila egokia da.	✓			
III.2.3.	Tituluko egresatuen laneratze-mailaren adierazleen balioak tituluari dagokion testuinguru sozioekonomikorako eta profesionalerako egokiak dira.				

3.-HOBKUNTZA PROPOSAMENAK ETA INDARGUNEA (Barne Kudeaketa)

III.1. HOBKUNTZA PROPOSAMENEN JARRAIPENA (2017-2018 ikastuetean gauzatutakoak)

	JATORRIA	PROPOSATZEN DU	PROPOSAMENA	PROPOSAMEN DATA	EKINTZA	EXEKUZIO DATA	ITXIA	EKINTZA IKASTURTEA
1	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak.	Graduko Koordinatzailea	Tutoretza sistemaren egokitzapena. Azken ikasturteetan erabilitako tutoretza sistemak ahalbidetu du ikasleak gertutik jarraitzea eta haiei beren ikaskuntza prozesuan laguntzeko neurriak hartzea. Elkarrizketa pertsonalak egin dira lehen bi mailatan, bina ikasturtean zehar, eta hori era positiboan baloratu da. Hala ere, tutoreak mailakoak izan dira orain arte, eta horrek eragotzi egin die ikasle horien jarraipena graduan zehar luzatzea. Hori hobetze aldera, proposatu da tutoretza sistema hori gehiago fintzea eta tutoreak ikasle horren segimendua hainbat ikasturtez bermatzea. Horretarako, sei tutore identifikatuko dira lehen hiru mailatarako. Bakoitzak guztira 25 ikasle inguru izango ditu, hiru mailatan barreiatuta, eta haien segimendua egingo du hiru urte horietan, aipaturako elkarrizketa eta segimendu pertsonalizatuaren haritik. Horrela bermatuko da tutore horrek jarraipen estua egiten duela ikaslearena. Laugarren maila azkenekoa denez, eta, ikasleak, oro har, graduaren ondorenari begira daudenez, proposatu da bere horretan uztea, tutore bakar batekin. Tutore horren zeregin nagusia izango da azken mailako ikasleak orientatzea, bai lan munduari begira, baita ondoko ikasketei begira ere.	2017-07-06	Abian jarri da Tutoretza sistemaren egokitzapena.	2018-07-20	Bai	2017-2018
2	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak.	Graduko Koordinatzailea	Gradu Bukaerako Lana berritzea. Gradu Bukerako Lana moldatu behar da, orain arte baino kreditu gehiago izango dituelako (18 ECTS izan ditu orain arte, eta 24 ECTS izango ditu hemendik aurrera). Proposamena da indartzea hasierako klase presentzialak eta lana bera ere neurrikoa planteatzea. Lehen klase presentzial horietan, azken lana egiteko baliagarri gerta daitezkeen saioak planteatuko dira, betiere ikasleei laguntzeko azken produktu hori behar bezala egin dezaten. Hauek dira aurreikusitako saioak: ikerketa-metodologiaren gaineko mintegiak, hizkuntza tailerrak, sormena lantzeko metodologiak, porrota kudeatzeko saioak... Horrez gain, proposatu da orientazio saioak ere aste horietan txertatzea eta haiei gorputz gehiago ematea. Izan ere, Gradu Bukaerako Lanaren helburua ez da soilik graduan zehar garatutako konpetentziak jaso eta bereganatu dituztela ikustea, baizik eta etorkizunari begira ere prestatzea. Amaitzeko, berrikuntza prozesu honen barnean, GBLaren kalifikazio sistema moldatu egingo da eta bigarren deialdia irailetik uztaiera ekarriko da.	2017-07-06	Proposamena martxan jarri da.	2018-07-20	Bai	2017-2018

3	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak.	Graduko Koordinatzailea	<p>Eredu berriaren balorazioa. 2017-18 ikasturtean amaituko da eredu berriaren inplementazioa maila guztietan. Ikasturtez ikasturte hainbat hobekuntza planteatu dira (ikasketa-emaitzak murriztu eta biltzea, astebeteko lan-sekuentziak ezabatu eta luzatzea...), baina orain nahi da balorazio global eta integrala egitea, aurrera begira hartu beharreko erabakiak hartzeko. Helburua da gradua bere osotasunean aztertzea, behin berrikuntzak maila guztietara zabalduta ondoren, eta egindako aldaketaren ondorioak ateratzea. Horretarako, ikasturte amaierako tutore mintegiak erabiliko dira eta fakultateko beste lankide batzuk gonbidatuko dira.</p>	2017-07-06	2017-18 ikasturtean eredu berriaren inplementazioa egin da maila guztietan, eta balorazio orokorra egiteko, batetik, 4. mailako ikasleekin egindako jarraipen bileran, graduaren balorazio orokorra egin da, eta, bestetik, ikasturte amaierako tutore mintegiak baliatu dira, irakasleekin. Tutore mintegi horietan, irakasleen balorazioaren osagarri gisa, aintzat hartu dira ikasleek jarraipen bileran esandakoak. Oro har balorazio positiboa egin da, hala ikasleen artean nola irakasleen artean. Hobekuntza batzuk identifikatu diren arren, graduaren balorazio global eta integrala egiteko bi ikasturteren balantzea izatea hobetsi da. Hori dela eta, balorazio integrala 2018-19 ikasturtearen amaieran egitea erabaki da.	2018-07-20	Bai	2017-2018
---	--	-------------------------	--	------------	--	------------	-----	-----------

III.2. TXOSTEN HONETAN IDENTIFIKATUTAKO HOBKUNTZA PROPOSAMENAK (2017-2018 ikasturtean identifikatutakoak)

	JATORRIA	PROPOSATZEN DU	PROPOSAMENA	PROPOSAMEN DATA	IKASTURTEA
1	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak.	Graduko Koordinatzailea	<p>Platoko instalazioen azken fasea. Gradu berriaren inplementazioa amaituta, platoko instalazioen azken faseari ekin zaio, errealizazio-kontrolaren ekipamenduari, alegia. Horrela, 2018-19 ikasturteko hasieran amaituko denez platoko instalazioen hornikuntza, platoko praktikak fakultatean bertan egin ahal izango dira (2017-18 ikasturte arte praktika horiek Goiena Tebistan egin dira). Gainera, platoa fakultate bertan egongo denez, ikasleei aukera gehiago eskainiko zaizkie praktikak egiteko, bai platoko instalazioa lan-sekuentzia gehiagotan baliatuta, bai bestelako grabazio batzuk bertan egiteko aukera eskainita.</p>	2018-07-06	17-18

III.3. IDENTIFIKATUTAKO INDARGUNEAK

	DATA	PROPOSATZEN DU	JATORRIA	INDARGUNEA
1	2018-07-06	Graduko koordinatzailea	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz	Graduaren diseinu berriaren egokitasuna eta asetatsun maila altua, hala ikasleen nola irakasleen artean.

			eratorritakoak.	
2	2018-07-06	Graduko koordinatzailea	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak.	Gradu Bukaerako Lanaren balorazioa positiboa da. 18 ECTStik 24 ECTS izatera pasa denez, ikasleek denbora daukate lan esanguratsua egiteko bai lan akademikoari dagokionez, bai enpresak edo erakundeak identifikatutako eta eskatutako beharrari erantzuteko, betiere ikus-entzunezko komunikazioaren esparruaren baitan kokatzen den lanaren bitartez.

4.- TITULUAN EGINDAKO ALDAKETAK

IV.1. EGIAZTAPEN-/BAIMEN-TXOSTENETAN GOMENDATUAK

EZ DAGO

IV.2. JARRAIPEN TXOSTENETAN GOMENDATUAK

EZ DAGO

IV.3 ZENTRO ARDURADUNAREN EKIMENEZ EGINDAKOAK

EZ DAGO

I ERASKINA. ADIERAZLEAK	Erreala 14-15	Erreala 15-16	Erreala 16-17	Erreala 17-18	Emaitzen Balorazioa	Oharrak
Eskaintzen den plaza kopurua, guztira	50	50	50	50	●●●●	
Onarpen berriko matrikula kopurua lehenengo ikasturtean (EUS)	47	50	52	50	●●●●	
Unibertsitatera sarrera proba eginda sartutako ikasle kopurua	41	43	44	44	●●●●	
LH-tik sartutako ikasle kopurua	4	5	3	6	●●●●	
<25 urtetik gorakoen sarrera-proba eginda sartutako ikasle kopurua.	0	0	0	0	●●●●	
Gainontzeko sarbide bat duten ikasle kopurua	2	2	5	0	●●●●	
Gutxieneko sarrera nota	5,30	5,21	5,21	6,94	●●●●	
Atzerriko jatorria duten matrikulatutako pertsona kopurua	0	0	0	0	●●●●	
Titulazioaren betetze maila	1,68	1,00	1,04	1	●●●●	
Bekadun ikasle kopurua (emakumezkoak)	19	24	51	23	●●●●	
Bekadun ikasle kopurua (gizonezkoak)	15	19	14	15	●●●●	
Irakasle eta ikertzaileak (emakumeak)	12	11	10	10	●●●●	
Irakasle eta ikertzaileak (gizonezkoak)	17	19	14	17	●●●●	
Irakasle eta ikertzaile doktoreak (emakumeak)	7	8	6	7	●●●●	
Irakasle eta ikertzaile doktoreak (gizonezkoak)	6	7	7	7	●●●●	
Irakasle lantaldearen egonkortasuna	%55,31	%73,33	%63	%63	●●●●	
Irakaskuntza egiaztapena duen irakasle doktoreen %-a	-	%46,67	%53,84	%64	●●●●	
Ikasle/irakasle ratioa	6	6,10	8,25	7,12	●●●●	
Ebaluazio Tasa	98,37	99,41	98,70	100,00	●●●●	
Errendimendu Tasa	94,19	94,92	98,80	96,91	●●●●	
Arrakasta Tasa	95,75	95,48	98,07	96,91	●●●●	
Uzte Tasa	4,25	0	7,60	6,00	●●●●	
Graduatze Tasa	75,75	80	82,69	87,23	●●●●	
Eraginkortasun Tasa	94,34	98,75	96,62	98,99	●●●●	
Ikasleen gogobetetze maila	7,12	7,56	7,70	7,55	●●●●	
Ikasle-Trukea.Atzerritik etorritako ikasle kopurua.	2	1	2	1	●●●●	
Ikasle-Truketa. Atzerrira bidalitako ikasle kopurua.	9	14	28	23	●●●●	
Ikasleen gogobetetze maila	7,12	7,56	7,70	-	-	
Egresatutako pertsonen gogobetetze maila	6,51		-			
Enplegu tasa (emakumezkoak)	85,71		%55		●●●●	
Enplegu tasa (gizonezkoak)	72,72				●●●●	
Langabezia tasa (emakumezkoak)	14,29	-	%20		●●●●	
Langabezia tasa (gizonezkoak)	27,27				●●●●	
Ahokatutako enpleguaren % (emakumezkoak)	50,00		-		●●●●	
Ahokatutako enpleguaren % (gizonezkoak)	87,50		-		●●●●	

Emaitzak ebaluatzeko, honako kodea erabiliko da:



Adierazleak azaltzen duen joera bat dator espero zen emaitzarekin. Praktika onak identifika daitezke.



Alde txiki bat dago adierazleak azaltzen duen joeraren eta espero zen emaitzaren artean. Beharrezkoa izan daiteke neurriren bat hartzea.



Alde nabarmena dago adierazleak azaltzen duen joeraren eta espero zen emaitzaren artean. Beharrezkoa da ekintza-zuzentzaileak bideratzea.